



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

*Ibarako Udalean eta Udalerrian Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Arauak ematen dituen UDAL-ORDENANTZA*

## **SARRERA**

*Euskara Ibarako Udalean eta Udalerrian sustatu eta normalizaziorako bidean jar dadin, hots, udalaren atal guztietan eta gizarte-bizitzan normaltasunez erabil dadin egin da Ordenantza hau.*

*Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza izateaz gain, Euskal Herri osoaren eta gizadi osoaren ondare da. Hori horrela, hiritar guztien elementu integratzaile izan behar du, eta ibartar guztientzat hala izan dadin saiaturiko da udala. Beste hitzetan esanda, euskara Ibarako Udalean eta udalerrian normaltasunez erabiliko den egiazko komunikabide izan dadin nahi du udalak, eta horretarako neurri egokiak hartuko ditu.*

*Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza hau Ibarako udalerria hizkuntza-normalizaziorantz bideratzeko neurri eta arauen bilduma da. Ordenantza honen hizkuntza-filosofia, soziolinguistikari hizkuntza premiatsuenaren alde aurrera egiten duen elebitasuna deitu da, hots, euskara soilik erabil litekeenean euskara soilik erabiltzekoa eta euskara eta gaztelania, biak erabiltzerakoan, euskara lehentasunez erabiltzekoa.*

*Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza dena Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera hizkuntza ofiziala da, eta hiritar guztiek dute euskara ezagutu nahiz erabiltzeko eskubidea, eta autonomia-erkidegoko erakunde komunei dagokie euskararen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola beraren ezaguera ziurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta arautzea.*

*Ordenantza hau osatzen duten arau eta neurriak, azaroaren 24ko 10/1982 - «Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legea»n, aipatu Autonomia Estatutuko 6. artikuluan xedatutakoa garatzera datorrenean, eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoan, ematen diren xedapenetan oinarrituta daude.*

*Administrazio bakoitzari dagokio aipatu arau eta xedapen orokorrak, bakoitzak bere jarduera-eremuan aplikatzea, eta aplikazio horretarako arauak eman eta bitartekoak baliaraztea. Horixe da, hain zuzen ere, ordenantza honen xedea, hots, indarrean dauden xedapen orokorrak Ibarako Udalaren jarduera-eremuan hezurmami eta aplika daitezten arauak eman eta betearaztea.*

*Indarrean dagoen araudiaren eta, halaber, euskararen erabilera arautzeko oinarrizko legeari buruz Konstituzio Auzitegiak emandako ekainaren 26ko 82/1986 Epaiaren arabera hiritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea ber-matzea eta aipatu hizkuntzaren ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea dagokie botere publikoei. Ibarako Udalak bere gain hartzen du erantzukizun hori eta, era berean, euskararen*



*normalizazioaren erantzukizuna udal-batzorde guztien artean banatzen da, Euskara-batzordea gidari eta eragile nagusi izanik. Horiek horrela, udalaren jokaerak garai honetan ez du izan behar euskarari nola edo hala eustekoa bakarrik. Alderantziz, euskararen erabilera eredu eta bultzagile izan behar du, azken urte eta mendeetan izan duen jokabidearen konponbide gisara eta euskarari laguntzarik eta bultzadarik eman nahi badio, bere burua euskalduntzea eta gizarte-bizitzan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta laguntzea izan behar dute jokaeraren ardatzak, euskara gizarte-bizitzaren alor guztietara hedatzen dadin. Hortaz, udalaren barne-funtzionamenduan nahiz udalaren eta herritarren arteko harremanetan, hala nola udalerriko gizarte-bizitzan euskararen erabilera normalizatzeko udalak izango duen jardunerako arau-esparrua definitu da ordenantza honen eskutik, eta honekin guztiarekin, aurrera egiten lagunduko digun euskararen inguruko azpiegitura lortzea da xede.*

### **LEHEN KAPITULUA: Xedapen Orokorrak**

#### *1. artikulua.*

*Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza dena, Ibarako Udalean eta udalerrian hizkuntza ofiziala da.*

#### *2. artikulua.*

*Euskara hizkuntza ofiziala denez, euskaraz idatzitako erabaki, jakinarazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiek balio ofiziala dute.*

#### *3. artikulua.*

*Aplikazio-esparruari dagokionean, Ibarako Udal-administrazioaren eta bere menpe dauden erakunde euskararen erabilera, aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege nahiz arauak eta Ordenantza honek ezartzen dituen xedapenek arautuko dute, bai barne-funtzionamenduan bai herritarrekiko eta organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, azken helburua euskararen erabilera normalizazioa delarik.*

#### *4. artikulua.*

*Euskara ofiziala bada ere, hainbat eta hainbat urtetan jasan duen zokoratze-prozesuaren ondorioz, normalizaziotik urrun dago. Hortaz, euskararen normalizazioa lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio euskarari Ibarako Udalak.*



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

#### 5. artikulua.

*Euskal Herriko hiritar guztiek dute euskara ezagutu ezezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Ibarra Udalak, honako hizkuntz eskubideok aitortzen dizkie espresuki hiritarrei:*

- a) *Udalarekin eta bere menpeko organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz izateko eskubidea.*
- b) *Udalak antolatu, kudeatu edo lagunduriko ikasketak oro euskaraz egiteko eskubidea.*
- c) *Udalaren argitarapenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.*
- d) *Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.*

*Artikulu honetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ezezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Ibarra Udalean, administrazio izaerako barne-jarduerak euskaraz burutuko dituelarik Udalak, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.*

#### 6. artikulua.

*Euskara bakarrik erabiliko da ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta/edo jasotzaileen berezitasunak hala eskatzen dutenean, betiere, banako oroko dituen hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.*

#### 7. artikulua.

*Udalaren helburua, euskara herritarrentzako nahiz langileentzako zerbitzu-hizkuntza ezezik lan-hizkuntza ere bihurtzea da eta gainerako administrazio-zerbitzuetarako zirkuito elebidunak sortzea, euskaraz sartzen den edozein idazkirentzat oso osorik euskarazko izapideak egitea bermatuz. Euskarak izan behar du Ibarra udal-jardueran normalki erabilitako lan-hizkuntza, eta ordenantza hau behin betikoz onesten denetik gehienez ere bi-hiru urteko epea finkatzen da Udal-administrazio honetako zerbitzuak Ordenantza honetan bertan xedatzen denari egokitzeko.*

### **BIGARREN KAPITULUA: Euskararen Erabilera Udalaren Barne-Funtzionamenduan eta bere eskumeneko erakundeetan**

#### 8. artikulua.

*Aurreko artikuluetan jasotakoa betetzeko xedez, udal-langileak euskaldundu eta alfabetatzeko neurri egokiak hartuko ditu Ibarra Udalak, eta aipatu helburuak lortzeko jarduera-plangintzak egingo ditu. Era berean, etorkizunean kontratatzen dituen langileek beren jarduna euskaraz burutzeko gai izan beharko dute. Guzti horretarako,*



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

*apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ildotik, Udaleko eta Udalaren menpeko erakundeetako lanpostu guztien hizkuntza eskakizunak definitu eta onartu ditu, lanpostuetan jardun ahal izateko ezinbesteko baldintza gisara; lanpostuen zerrendetan jasota daude hizkuntza eskakizun horiek.*

*Hizkuntza eskakizunak lanpostu bakoitzaren funtzio eta zereginen arabera definitu dira, hots, plaza bakoitzaren izaeran (Udal barruko nahiz kanpoko harreman-sarean, menpeko pertsonalean, zerbitzuaren izaeran, lanpostuaren maila profesionalean, eginkizun zehatzetan) oinarrituz erabaki dira lanpostuen ahozko nahiz idatzizko hizkuntz trebetasunak.*

*Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak hizkuntza eskakizunak definitu eta Ibarako Udalak onartu dituenez Ordenantza honi eranskin gisara gehitu zaizkio.*

*Era berean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ildotik udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu du eta hura ere eranskin gisara gehituko zaio ordenantza honi.*

#### *9. artikulua.*

*Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak xedaturiko bost helburu mailakatuetariko laugarrena hartzen du beretzat Ibarako Udalak. Beraz, gizarte-izaera eta izaera orokorra duten Zerbitzu eta Administrazio Unitate guztiek euskaraz burutuko dute beren jarduna, baina, beti ere, herritarrak gaztelaniaz jasotzeko duen eskubidea bermatu behar du Udalak. Gainerako Zerbitzuetan, hau da, kalegarbitzaileen eta obretako lantaldearen zerbitzuan zirkuito elebiduna bermatuko da, eta arduradunak elebidun izan behar du.*

#### *10. artikulua.*

*Aipatu dekretuko laugarren helburua ordenantza hau behin betikoz onesten denetik urte bat bi urteren buruan lor dadin plangintza egokia prestatu eta hezur-mamituko du Ibarako Udalak; plangintza horretan zehaztuko dira langile guztiak eta bakoitza, dagokien hizkuntza eskakizunera egokitzeko prozesuan bete beharko diren epeak, Udalak jarriko dituen bitartekoak, lehentasunak eta beste.*

#### *11. artikulua.*

*Ibarako Udalean eta bere eskumeneko erakundeetan lehendik kontratatuta lanean ari diren langileek (funtzionari nahiz kontratatuak, finkoak nahiz aldi baterakoak), beren eguneroko lana, nork bere mailan, euskaraz egiteko gai izan behar dute eta gai ez direnak gaitu egingo dira, horretarako beharrezko diren euskarazko prestakuntza-ikastaroak eginez.*

*Lortu beharreko Euskararen hizkuntza mailak eta berorietara heltzeko egin beharreko ikasketak erabakitzerakoan, ondorengo bi puntu hauek hartu behar dira kontuan:*



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

11.1. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ondorioz, Hizkuntz Politikarako Sailordetzak, Herri-Arduralaritzako Euskal Erakundearekin elkarlanean lanpostu bakoitzarentzat ezarritako hizkuntza eskakizunak.

11.2. Aurrekoari kalterik egin gabe, Udalak, Euskara-Batzordearen bidez egindako edo eginarazitako azterketen bidez beharrezkotzat jo ditzakeen mailak.

Hizkuntzaren ezagutza-maila horiek lortzeko, Euskara Batzordeak, HAEE eta HPSrekin batera Egitasmo zehatzak proposatuko ditu eta Udalak onartuko, urteroko aurrekontuetan horretarako behar diren diru-kopuruak onetsiz.

Egitasmo horiek, hiru arlotakoak izango dira:

- Euskalduntze-arlokoak.
- Alfabetatze-arlokoak.
- eta Laneko Euskararen arlokoak, AEBEMET metodologiaren bidez.

Funtzionario eta langile guztiei emango zaie Ordenantza honen berri, bai eta, era berean, lanpostuei dagozkien hizkuntza ezagutza eta erabilera-mailaren berri ere.

## 12. artikulua.

12.1. Ibarako Udalak, objetibotasun-irizpidez hautatuko du langileria guztia, nola Udalerako hala menpeko erakundeetarako, nola funtzionarioa hala kontratatua, nola finkoa hala aldi baterakoa, izangaien berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera eta beti ere deialdi publiko bidez, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen eta Udalak onetsitako oinarrien arabera.

12.2. Ibarako Udalak etorkizunean kontratatuko dituen langileek beren jarduera euskaraz burutzeko gai izan beharko dute. Ibarako Udaleko lanpostuez funtzionario gisara nahiz lan-eraentzapean jabetu ahal izateko nahitaezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea, lanpostuak duen eskaera mailari egokitua; (gutxienez ere) uztailaren 6ko 6/1989 Legeak Euskal Funtzio Publikoarenak 97. artikuluan eta ondorengoetan xedatutako eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ondoriozko hizkuntza eskakizunei eta Udalak beharrezkotzat emandako mailei dagokiena.

12.3. Oposizio eta lehiaketetan nahitaez euskaraz egin beharrekoak ez diren gaietako azterketak berriz, edozein gairi dagozkionak izanik ere, bi hizkuntzetan aurkeztuko zaizkie izangaiei, horiek, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan azterketa egiteko aukera izan dezaten.

12.4. Probak gainditzen dituztenen artean lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ere betetzen duen lehen izangaia jabetuko da lanpostuaz. Hizkuntza eskakizuna betetzen duen izangairik ez balego, hutsik utziko da plaza, berriro deialdia egiteko. Hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa ez duten lanpostuetarako euskara meritu bezala balioetsiko da.



12.5. Bestalde, Udalak kontrata ditzakeen enpresetako langileak Udalarentzat lanean jardungo direnean, lanpostuaren arabera egoki iruditutako euskararen ezagutza maila kontratua esleitzeko Klausulen Orrian zehaztu behar da, eta horren arabera jandun.

### 13. artikulua.

13.1. Ibarako Udalaren eta bere eskumeneko erakundeen eraketa--helburua, euskalduna izatearena da, hau da, langile, funtzionario nahiz kontratatu euskaldunetz eratutako administrazio-zerbitzu eta -sail euskaldunak dituen izatea, euskaraz nahiz gaztelaniaz nahiz bietan arlo guztietan aritzeko gai den administrazioa lortzea.

Hala ere, 4. artikuluaen filosofiari jarraituz, Euskara lehentasunez erabiliko da.

13.2. Egungo egoeratik abiatuta, ondorengo urratsak markatzen dira Bulego, Zerbitzu eta Sailetan epe desberdinetan HPSren Hizkuntz Eskakizunen arabera lortzeko:

#### 13.2.1. Berehalako epean:

- Ordenantza honetako 5. artikuluaen arabera, euskara, Ibarako Udalean, zerbitzurako hizkuntza ezezik laneko hizkuntza ere izango denez, dagokien hizkuntza eskakizuna jadanik betetzen duten langileek euskaraz burutuko dute beren lana.
- Bulegoetan langile guztien gutxieneko mintzamen-maila lortua izatea.
- Euskaraz dakiten udal-langileak euskaraz zuzenduko zaizkie herritarrei beren ahozko harremanetan, gaztelaniaz jardungo direlarik baldin eta hauek aukera hori egiten badute.
- Zerbitzu guztietan Euskara-Zerbitzuko Arduradunaren laguntzarekin inprimaki errazetan euskara idatzia erabiltzeko gai den langileren bat izatea.
- Orokorki, 1982.eko azaroaren 24eko 10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeko 5.1. artikulua agintzen duena bermatzea, hots, edozein hiritarri, edozein zerbitzutan, ahoz nahiz idatzizko zerbitzua euskaraz eskaini ahal izatea.

13.2.2. Epe ertainera begira (ordenantza behin betikoz onesten denetik 2-3 urtera):

- Zerbitzu guztietan ere, idazkiak, abisuak, oharak, berriemateak, jakinarazpenak, txostenak, eta abar, euskaraz idazteko ere gai izatea.
- Zerbitzu batzuetatik besteetara joaten diren euskarazko komunikazioek, maila normalekoak diren heinean bederen, txostenari euskaraz jarraitzea, itzuli beharrik izan gabe.
- Zerbitzu desberdinen artean euskarak, iristen den heinean gutxieneko ibilbidea normaltasunez izatea, erdarara jo beharrik izan gabe.
- Elebiduntze-plangintzaren barruan euskalduntzen doazen heinean, beren



*lana pixkana-pixkana euskaraz burutzeari ekingo diote, dagokien hizkuntza eskakizuna eskuratzean erabat euskaraz jardungo direlarik.*

- *Zerbitzu eta Sail bakoitzaren egitura komunikatzailearen baitan, euskarazko zirkuitu komunikatzailea sortzea.*
- *Edozein espedienteren udal-bideratzea (tramitazioa) abiatu den hizkuntza berean (gutxienez elebidun) egin ahal izatea, itzuli beharrik izan gabe.*
- *Hitz gutxitan esanda, Euskarak zerbitzu-hizkuntzaren funtzioa osotasunean betetzea lortu behar du.*
- *Langileen euskarazko jardueraren itzulpena ezin izango zaie beraiei eskatu. Udalaren Euskara-Zerbitzua izango da, bere itzultzailetza-zerbitzuaren bidez, herritarren hizkuntza aukera librea bermatzeko, hala eskatzen dutenean, gazteleraz behar dena gazteleratuko duena.*

*13.2.3. Epe luzera begira (prozesua amaitzerako helburuak, ordenantza onesten denetik 3-4 urtera):*

- *Euskarak zerbitzu-hizkuntza bezala dituen betebeharrak guztiz bermatuta egon behar dute.*
- *Sail eta bulego guztietan, Euskarak Laneko Hizkuntza izatera pasa behar du, hitzez eta batez ere idatziz, ordenadoreen funtzionamendua eta txosten tekniko nahiz juridikoak ere euskaraz oztoporik gabe eginez.*
- *Aurrera begira, Udalaren funtzionamendu osoa, nagusiki euskaraz burutuko du.*

*13.3. Bideak eta Bitartekoak. Aurreko helburuak betetzeko aipatutako urratsak eman ahal izateko, beharrezkoa da ondorengo bideak eta bitartekoak ipintzea:*

*13.3.1. Denbora oso edo partzialeko ikastaroak, ikasturte bat edo gehiagoko ikastaroak, hala nola ikastaro trinkoak, barnetegiak, lanorduetan edo lanorduz kanpo burutu beharrekoak, langiroko prestakuntza, eta abar, Euskara-Zerbitzuak kontrolatu eta balioetsiko ditu ikastaroen emaitzak. Langile bakoitzarentzat egoki den bitartekoa langilearekin adostasunean aplikatu behar da.*

*13.3.2. Zerbitziburuek eta Euskara-Zerbitzuak, Udalak onartutako Lege, Dekretu eta Ordenantzetan aginduak betez helburuak betetzen joatean, Zerbitzu desberdinetan dauden beharrak aztertuko dituzte eta Euskara-Zerbitzua behar horien jakinaren gainean jarririk, beronek idatziko ditu, Euskararen Normalizaziorako Batzordearen eta HAEE nahiz HPSren oniritziekin, beharrezko diren euskalduntze-alfabetatze eta laneko euskararen egitasmoak eta, kasuan kasu, Gobernu Batzordeak edo Udalbatza Osoak onartuko ditu.*

*13.3.3. Birziklaketetako lehentasunak edozein kasutan, ondoko ordena honi jarraiki ezarriko dira:*

- *Euskararen egoera Zerbitzu bakoitzean zein den aztertu ondoren (HPSk egindako inkestaren bidez nagusiki egina), bi lerrotan abiatuko dira*



lehentasunak:

- 1) Euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatzerantz.
- 2) Euskararen ezagutzan aurreratuenak lan-arloko alfabetatzeak burutzerantz, Euskara beren eguneroko lanean tresna izaten has dadin.

- Herritarrekin harremanik handien eta zuzenenak dituzten lanpostuetakoek lehentasuna izango dute.
- Karguen arabera berriz, goikarguek (Idazkari-Kontuhartzailea, Batzorde informatibo edo Saitetako idazkariak, Zerbitzuburuak eta Arduradunak) dute lehentasuna. Goimailako lanpostuek, lana sortzen eta bideratzen dutelako eta azken erantzukizuna eta erantzuna ere beraiek dutelako, ondorio biderkatzailea dute hizkuntza erabileran hala oztopaketa, eta, alde horretatik, beheko mailetakoak baino lehenago alfabetatu beharra dago. Bestalde, hizkuntza eskakizunaren arabera lortu beharreko hizkuntza maila edo gaitasuna, altuago da goiko karguentzat, beraz, lortzeko ere denbora gehiago behar denez, lehenengo beraiekin hasi behar da.
- Langile ikaslegaien adinari dagokionean berriz, lehentasuna gazteenek izango dute orokorki, baina helduagoek ere badute erantzukizuna zeregin honetan ezen adibidez, duten lanpostuarengatik nahiz adin-mugarengatik, premiazko lehentasuna izan baitezakete. Oro har, 45 urtetik gorakoak ez dira egitasmoetan sartuko, beraiek horretarako prest ez badaude behintzat.
- Asko idazten den lanpostuetako langileek ere lehentasuna izango dute ikastaroak egiterakoan, izan ere beraien lanak, asko baldintzatzen du-eta euskararen erabilera.
- Langileek dagokien hizkuntza eskakizunera egokitzeko programaren aplikazioan, lantalde edo sail bereko langileen artean euskalduntze- eta alfabetatze-prozesuan aurreratuen daudenak lehenetsiko dira, interesatuek espresuki alderantzizkoa adierazi ezean.
- Lortu behar duten hizkuntza gaitasuna, gutxienez ere lanpostuen hizkuntza eskakizunetan adierazten dena izango da, eta, oro har, beren eguneroko lana hitzez eta idatziz euskaraz egiteko adinakoa.
- Zerbitzu guztietan, administrari-laguntzaile mailatik gorako langile-funtzionario guztien euskararen ahozko eta idatzizko ezagutza normalizatzeko prozesua burutzeko, ordenantza behin betikoz onesten denetik urtebete-bi urteko epea jartzen da.
- Langile eta funtzionario guztiek, nor bere prestakuntzaren arabera, betebeharra izango dute, euskara ere, hizkuntza ofizial legez, bai zerbitzu-hizkuntza bezala eta bai eta lan-hizkuntza bezala ere erabiltzeko. Sortzen zaizkien arazo guztiak konpontzeko Euskara-Zerbitzuko Hizkuntz Teknikarien laguntza izango dute.
- Langile eta funtzionario guztiei emango zaie Ordenantza honen berri eta halaber beraiek eginkizun honetan euskara zerbitzu-hizkuntza nahiz lan-hizkuntza legez erabiltzeko duten betebeharrarena ere.





13.3.4. Beren udal-jarduna euskaraz burutzeko gai diren eta hala burutzen duten langileen esku jarriko ditu Udalak beharrezko diren lexiko-hiztegi, terminologi zerrenda, aldizkari eta liburu espezializatu eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak. Era berean, Euskara-Zerbitzuaren aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira langileak.

13.3.5. Idazmakinak, ordenagailuak, berauen inprimagailu eta programak, eta Ibarako Udaletxean erabiltzeko eskuratutako materialak euskaraz funtzionatzeko egokituak egon behar dute.

13.4. Ibarako Udalean, leku-aldaketaz, igoeraz, transferentziaz nahiz beste edozein bidez lanpostu berri batera heltzeko, ezinbesteko baldintza da lanpostuari dagozkion hizkuntza eskakizunak betetzea. Horretarako, Udaleko lanpostuen zerrendak berak jasoko ditu lanpostu bakoitzari dagozkion hizkuntza eskakizunak; eta urteko aurrekontua, lanpostu-zerrendarekin batera, epe barruan aurkeztuko da urte horretan Udalean egingo den lanpostu-eskaintza Udalbatzak Osoko Bilkuran onar dezan.

#### 14. artikulua.

Udaleko Alkatetzak, Alkateordetzek, Batzordeek, Idazkaritzak, Bulego Teknikoak, Udaltzaintzak eta beste Administrazio-Sail edo Zerbitzu desberdinek, Osoko Bilkura eta Gobernu Batzordeko batzarraldietarako nahiz Ordenantza honen esparrupeko erakunde edo organo desberdinen ezaguerapean jartzeko, eta, era berean, bilkura horietatik kanporatzeko Txosten, Akta, Irizpen, Gai-zerrenda, Proposamen, Txosten, Mozio, Aurrekontu, Akordio eta gainerako jakinarazpen oro, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.

14.1. Udaleko informazio-organoen, Gobernu Batzordearen eta Udalbatzarraren bilkuretako akten jatorrizko testuak euskaraz jaso behar dira, nahiz eta bertan izandako interbentzioei buruzko erreferentziak egin izan diren hizkuntzan jaso; hori guztia beharrezko den kasuetan gaztelaniara itzultzeari kalterik egin gabe.

14.2. Udaleko organo guztiek dute -informatiboek nahiz exekutiboek- beren ohiko lan-hizkuntzatzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat, horrela eskatuz gero, itzulpen-zerbitzua emango da. Organu horien aktak, jakinarazpenak, gutunak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan gaztelaniara itzultzeari kalterik egin gabe.

14.3. Kontuan izanik organo guztien helburua euskara lan-hizkuntza bihurtzea dela, bitarteko eta neurri mailakatuak hartuko ditu Udalak xede hori ordenantza behin betikoz onesten denetik lehenbailehen (1-2 urte) bete dadin.

#### 15. artikulua.

Udaleko informazio-organoen eta exekutiboen bilkuretako deialdi guztiak euskaraz egingo dira, eta gaztelaniazko itzulpena, eskatzen duten partaideei igorriko zaie.



*16. artikulua.*

*16.1. Udaleko Agirien Sarrera eta Irteerako Erregistro-Liburu, Urteko Aurrekontu-Liburu, Akta-Liburu eta gisako Liburu Ofizialak, elebidunak (euskara gaztelania baino nabarmenago eta lehentasunarekin dutela) izango dira.*

*16.2. Beste Erakunde Ofizial batzuk bidalitako Inprimaki Ofizialak ere (INEko Estatistikakoak, Erroldakoak, INEMeko enpleguak, eta abar) elebidunak izan behar dute.*

*16.3. Udaletxera sartzen diren nahiz Udaletxetik ateratzen diren agiriak idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira Udal-erregistroan, Azaroaren 24eko 10/1982 oinarritzko legeak 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira. Inskribatzerakoan idatzitako guztia (data, ordua,...) euskaraz egingo da.*

*17. artikulua.*

*17.1. Inprimakiak, gutunak, iragarkiak, idazkiak, jakinarazpenak, txostenak... euskara hutsezkoak erabiliko dira, 1982.eko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak 8.2 artikuluan agintzen duenaren arabera, herriko edozein talde, erakunde, elkarte, hiritar edo bestek harreman-hizkuntzatarako Euskara hautatzen duenean. Kasu honetan beraz, inprimakiak, gutunak, iragarkiak, idazkiak, jakinarazpenak, txostenak eta beste euskara hutsean idatziko dira.*

*Atal hau egintzan jartzean, guztien iritzia espresuki jakiteko, 14/16 urtez gorako herritar guztiei etxeko bisita egingo zaie harreman-idazki guztiak euskara hutsean jaso nahi dituzten jakiteko eta horren arabera jardungo da.*

*17.2. Euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira gainerako kasu guztietan, euskarari lehentasuna emanez, euskarazko hizkien neurria hiru aldiz handiagoa izanik eta kokapenari eta abarrei dagokienean lehenik euskaraz irakurria izateko moduan jarrita (goian, lehendabiziko, ezkerrean, eta abar).*

*17.3. Ibarra udalerritik kanpokoei igortzerakoan euskara hutsezkoak edo euskara eta gaztelaniazkoak erabiliko dira, kasuan kasu. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitakoak erabiltzen badira 17.2. artikuluan xedatutakoaren arabera igorriko dira. Azken kasu horretan, euskara hutsean eskatuko balute hala igorriko litzaieke.*

*17.4. Ibarako Udalak herritarren hizkuntza aukera librea errespetatuz euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzen zaizkion gutunak, idazkiak eta abar onartuko ditu, bai eta, hala dagokionean, berriemailearen lurraldeko beste hizkuntzaren batean eginikoak ere.*

*18. artikulua.*

*Udalaren eta bere menpeko erakundeen zigiluak, paperen idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre-zigiluak eta antzeko beste elementuak, bai barne-funtzionamendukoak*



*bai proiektzio publikoa duten agirietan estanpatzekoak euskaraz egongo dira.*

#### *19. artikulua.*

*19.1. Teknikariei (Arkitekto, Ingeniari, Aparejadore, eta abar) eskatutako proiektu teknikoak eta Abokatu, Aholkulari eta gisakoei eskatutako Txosten Juridikoak edo bestelakoak, euskaraz, edo publikoari agerian ipintzekoak direnean euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanaz idatzita egon behar dute. Planoak, kalkulu-orriak eta aurrekontuak, sistematikoki eta osoro euskaraz, edo publikoari agerian ipintzekoak direnean euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute euskarari lehentasuna emanaz. Memoria edo deskribapenak aparte idatzita egon daitezke euskaraz edo jendaurrean ipintzekoak direnean euskaraz eta gaztelaniaz, beti ere euskarari lehentasuna emanaz.*

*Zerbitzu Tekniko eta Juridiko Publikoak nahiz Pribatuak orokorki horretarako prestatuta ez daudenez, ordenantza hau behin betikoz onesten denetik urtebete-bi urteko epea ipintzen da Udalarenak berarenak bezala behar bezala prestatzeko, eta epe bera Foru Aldundi eta Jaurlaritzako zerbitzuei ere eskera berbera egiten hasteko.*

*Pribatuei halaber, ordenantza honen berri jakinaraziko zaie (elkargo profesionalei, azterlanen egileei, eta abar) eta ordenantza hau behin betikoz onesten denetik urtebete-biko epea emango zaie behar dituzten prestakuntzak egin ditzaten.*

*19.2. Udalak kanpoko saltzaile eta hornitzaileekin mantendu behar dituen merkataritzako kanpo-harremanetan euskararen normalizaziorantz urratsak emateko, guztiei emango zaie Ordenantza honen berri, eta baliabideak eskainiko zaizkie:*

- Agiri guztiak euskaraz ere aurkez ditzaten.*
- Gutunak, kontratuak, produktu- eta ekipo-izenak, beren erabilerarako eskuliburuak, mantentze-lanetakoak eta abar euskaraz ere izateko.*

*Euskal Herrian ordezkartzarik ez duten enpresen kasuan, kasu bakoitza aztertuko da eta ondorioz erabakiko.*

#### *20. artikulua.*

*Udalaren idatzizko azalpenak, bandoak, mezuak, abisuak, araudiak, ordenantzak, xedapenak eta ebazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira.*

*20.1. Euskara eta gaztelania erabiliko dira, eta euskarazko testuari lehentasuna emango zaio, gaztelaniazko testuaren gainean edo ezkerretara, euskarazko testuaren hizkien neurria hiru aldiz handiagoa izanik lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko.*



## 21. artikulua.

*Udalaren eta bere eskumeneko erakundeen azalpen ofizialetan, propagandan, informazioan, bandoetan, abisuetan, mezuetan eta jakinarazpenetan erabili behar den ahozko hizkera, era honetan izan behar da:*

*21.1. Euskara hutsa, ekintza-motak, bere ingurugiroak edo jasotzailearen berezitasunak eskatzen duenean edo/eta zor zaionean.*

*21.2. Gainontzeko kasuetan, euskara eta gaztelania erabiliko dira, lehenik beti euskara erabiliz eta mezua errepikatu behar denetan kopuru aldetik ere gaztelania halako hiru erabiliz.*

*21.3. Arlo honetan gerta litezkeen ezustekoei aurre egiteko, azalpen, mezu, abisu,... horiek eman behar dituztenak, elebidunak izan beharko dute beti eta beren eginkizuna nola bete behar duten alde zurretik garbi adierazi behar zaie.*

*21.4. Udal-instalazioetan erabiltzen diren bozgorailu bidezko irratietako programak ere euskarazkoak izan behar dute.*

## 22. artikulua.

*Komunikabideen bidez kanporatutako berriei dagokienean, ondorengo jarraitu behar da:*

*22.1. Euskara hutsez izango dira, ekintza-motak, bere ingurugiroak edo hiritar, erakunde, elkarte edo talde euskaldunei zuzendutako berri eta iragarkiak nahiz euskarazko komunikabideetara bidalitako iragarki eta publizitatea.*

*22.2. Gainerakoak, euskaraz eta gaztelaniaz kanporatu behar dira, baina lehentasuna euskarak izanez, bai denbora, tamaina, kopuru edo lekuari dagokionean. Errepikatzeak direnean, euskaraz, gaztelaniaz halako hiru aldiz adieraziko dira.*

*Aurreko bi atal horietan ezarria, bete egin behar dute herriko berri ofizialak ematen dituzten herriko berriemaileek eta komunikabideetako arduradunek.*

*Aurreko artikuluetan zehar adierazitako hori guztia burutzeko, bi inprimaki--mota prestatuko dira Udalean, euskara hutsezkoak eta elebidunak, kasu bakoitzean behar dena erabiltzeko. Elebidunak ordea, bi hizkuntzetan bete eta hala argitaratu behar dira.*

## 23. artikulua.

*Aldizkariak, txartelak eta, oro har, Udalaren argitarapenak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz eta hartzailearen hizkuntzan argitaratu behar dira, kasuan kasu, azken bi aukera horiek erabiliz gero euskarari lehentasuna emanaz, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.*



#### 24. artikulua.

24.1. *Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Erakunde Ofizial Autonomiko, Foral eta Udaldar guztiei (Udal, Foru Aldundi, Jaurlaritza eta beren ordezkariak guztiei) bidali behar zaizkien edonolako idazkiak, elebitan, hau da euskaraz eta gaztelera bidali behar dira.*

24.2. *Nafarroako Erakunde Autonomikoetara ere (Udal, Diputazio, Gobernu) idazki guztiak 24.1 puntuan adierazitakoaren arabera bidali behar dira.*

24.3. *Estatuak lehen aipaturiko Autonomia Erkidegotan dituen ordezkariak bidali beharrekoetan ere, aurreko bi kasuetako hizkuntza politika berberari jarraitu behar zaio.*

24.4. *Frantziako Estatuan dagoen Ipar Euskal Herriko erakunderen batera idazkirik bidali behar baldin bada, 24.1 puntuan adieraziaren arabera bidaliko da.*

24.5. *Euskara hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idazkietan euskara bakarrik erabiliko da, partikular gisara har badaiteke eta haiek hala adierazi badute.*

24.6. *Euskal Herriz kanpo, edozein Estatutako Erakunde Ofiziali zuzendutako idazkirik bidaltzean, euskara eta gaztelera eta ahal denean herrialde horri dagokion erdara erabiliko dira.*

#### 25. artikulua.

25.1. *Bai Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko eta bai eta Euskara Ofiziala den Nafarroako eremu euskalduneko Erakunde Autonomo Ofizialek (Udal, Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak), idazki guztiak elebitan bidera ditzakete. Ondorioz, idazkietan elebitasuna gordetzeko eskatuko die Ibarako Udalak.*

25.2. *Era berean jokatuko da Euskarak Ofizialtasuna duen Autonomia Erkidegoetan kokatutako Estatuko Ordezkaritza Ofizialetatik datozen gutun, idazki eta agiriekin ere berdin jokatuko da, hauek ere, Euskararen Legeak indarrean dauden lurraldeetan egoteagatik ahalmena baitute horrela jarduteko eta, beraz, eskaera egingo zaie bi hizkuntzak erabil ditzaten.*

25.3. *Nafarroako eremu ez-euskalduneko eta mistoko eta Ipar Euskal Herriko Administrazio Publikoek nahiz erakunde ofizialek Ibarako Udalari zuzendutako idazki, agiri eta gainerako oro euskaraz ere irits dadin eskaera aurkeztuko die Udalak.*

25.4. *Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpoko Administrazioek nahiz erakunde ofizialek Ibarako Udalari zuzendutako gutun, idazki, dokumentu eta abar, lurraldean lurraldeko hizkuntzan idatzirik ere onartuko dira.*



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

26. artikulua.

*Ibarako Udaleko kargu politikoez euskaraz hitz egingo dute Udalaren ekintza publikoetan, beren kargua dela eta parte hartzen dutenean. Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten badute, euskarari lehentasuna eman beharko diote, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.*

27. artikulua.

*Ibarako Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatziak izango dira, kontratuan esku hartzen duen beste alderdiak hala eskatuko balu berriz, euskaraz eta gaztelaniaz idatziak izango liratekeelarik, euskarari lehentasuna emanaz.*

**HIRUGARREN KAPITULUA: Euskararen erabilera Ibarako Udalerriaren gizarte-bizitzan bultzatu eta normalizatzeaz**

28. artikulua.

*Hiru dira euskararen erabilera Ibarako udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak beregain hartzen dituen helburu nagusiak:*

*28.1. Zabalpen funtzionala: euskara gizarte-sektore guztietara (lan-mundua, zerbitzuak, aisialdia,...) zabal dadin planak bideratzea erabilera-esparruak handitu eta zabalduz.*

*28.2. Zabalpen demografikoa: euskaldunen optimizazioa eta erdaldunen positibizazioa, honela, Euskaraz dakiten herritarren kopurua pixkana-pixkana gehituz, era berean gaurko euskararen erabilera ziurtatu eta areagotzeko, hala euskaraz dakitenek nola ikasten ari direnek erabil dezaten bultzada iraunkorra emanaz.*

*Hori horrela delarik, euskaraz dakitenen hizkuntz ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu Udalak, modu iraunkorrean, nola bere ekimenez, hala bere gaineratik dauden Erakundeen eta herritarren arteko bitartekotza eginez.*

*28.3. Zabalpen geografikoa: Euskararen erabilera Ibarako kale, auzo eta auzune guztietara zabaltzea.*

*Beraz, euskararen erabilera ziurtatu eta bultzatu eta gizartearen erabilera-esparru guztietan orokortzeko xedez, ahalegin berezia egingo du Ibarako Udalak bereziki euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatu daitezen.*

29. artikulua.

*29.1. Udalak jarritako zerbitzuetako errotulazioa, iragarkiak eta seinaleak Euskaraz idatziko dira, Euskaraz eta Gaztelaniaz antzeko moduz idazten diren hitzak eta esaldiak (Merkatua, (Auto)busa, Aparkalekua, Farmazia, eta abar) edo erabilera zabala dutenak (Udala, Isilik, Ez erre, Irteera, Txakurrik ez, eta abar) direnean eta*



*mezua piktogramez baliatuz adieraz daitekeenean.*

*29.2. Gainontzeko testuak, euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira, baina betiere euskarazko testuari lehentasuna emanez, gaztelaniazko testuaren gainean edo ikusgarriago jarriz eta euskarazko hizkien neurria hiru aldiz haundiagoa izanik lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko.*

### *30. artikulua.*

*30.1. Ibarra Udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Ibarra Udalak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; hori bai, betiere, euskal, erromantze edo gaztelani jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Ibarra udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspena egingo du Udalak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.*

*30.2. Kale-, bide-, auzo-, auzune-, mendi-, ibai- eta erreka-izen guztiak euskara hutsez jarriko dira eta ofizialki ere hala idatziko dira Udalean bertan, ondorio guztietarako.*

*30.3. Udalak jarritako herriko kale eta auzoetako idazkunak ere, printzipioz euskaraz idatziko dira:*

- Euskaraz eta gaztelaniaz antzeko idazkera dutenak: Taxiak, Parrokia,...*
- Toponimikoak, herri- eta auzo-izenak, baserrienak, landenak, mendienak,...*
- Erabilera zabal eta orokorra duten euskal hitz eta esaldiak: Udala, Udaletxea, Udaltzaintza, Ertzaintza,...*
- Beren esannahi osoa piktogramaz adierazita gelditzen zaienak: Eman bidea, Hirigunea....*

*30.4. Gainerako testuak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, baina betiere, euskarazkoari lehentasuna emanez, gainean edo lehenik irakurtzeko moduan jarriz eta hizkiak hiru aldiz handiago direla ipiniz, lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko.*

*30.5. Herribideetako trafiko-seinale eta iragarpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.*

### *31. artikulua.*

*Ibarra garraio publikoetako inprimaki, abisu, ohar eta adierazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezzen neurri eraginkorrek hartuko ditu Udalak. Nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da bai hizki-neurriari bai kokapenari dagokionean, hain zuzen ere, euskarazko testua goikaldean edo ezkerrean eta hizkiak gaztelaniazkoak baino hiru aldiz handiagoak izango direlarik.*



*Era berean, abiapuntua Ibarren ez eduki arren udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.*

### *32. artikulua.*

*Azaroaren 24eko 10/1982 oinarrizko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabil dadin eta, orohar, gizarte-bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei.*

*Hortaz, Ibarako Udalak, aipatu xedearen harian eta bere jarduketa-eremuan, ondoren adierazten diren neurriok hartu eta betereziko ditu.*

*32.1. Kultur, kirol- eta aisi-elkarte, erakunde, klub, entitate eta gainerako pertsona edo talde zerbitzu prestatzaileei diru-laguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Udalak idazki bidez adieraziko dizkie interesatuei, diru-laguntzak ematerakoan.*

*32.1.1. Ibarako Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz erakunde juridikoez, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idazki, iragarki, txartel, kartel, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman behar dituzte; propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dute. Era berean, ospakizun jakinetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman behar dituzte.*

*32.1.2. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman behar zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabe litezkeenak elebidunak baitira. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren kasuetan ondoko arauok bete behar dituzte:*

*a) Hizkuntza idatziaren aldetik:*

- Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak euskaraz bakarrik idatzi.*
- Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz eta esaldiak, euskaraz bakarrik idatzi.*
- Bestelako testuak bi hizkuntzetan badoaz, euskarak lehentasuna izan behar du gainean edo lehentasunez irakurtzeko moduan idatziz eta hizkiak gaztelaniazkoak halako hiruko tamaina izanez.*
- Materialak banatu baino lehen, Udaleko Euskara-Zerbitzura ale bat ekarri behar dute, horrek bere hizkuntz arloko oniritzia eman dezan.*

*Era berean, Euskara-Zerbitzuak ikuskatuko ditu, idazkun eta gisako idazki finkoak.*

*b) Hizkuntza mintzatuaren aldetik:*

- Bozgorailu, irrati, eta gisakoetaik egiten den propaganda, oharak, publizitatea, eta abar, euskara hutsez egiten ez den kasuetan,*





*euskaraz gaztelaniaz halako hiru egin behar da eta euskarari lehentasuna emanaz egin ere.*

- *Erabiltzen diren musika, kantu eta abarrei dagokienean euskarazkoa ipiniko da.*

*Diru-laguntzak eskuratzeko baldintzatariko bat izango da hori guztia, eta diru-laguntzaren hartzaileek, diru-laguntza jasoko badute, nahitaez bete behar dute.*

*Baldintza hauek betetzen ez badira, diru-laguntza ematea dagokion Batzordeak eta Gobernu Batzordeak, laguntza hori ukatu egin beharko du.*

*32.1.3. Hori guztia kontuan izanik ere, Udalak ahalegin berezia egingo du arestian aipatutakoa euskaraz soilik egin dadin.*

*32.2. Udal-instalazioak, aretoak, lurrak, plazak eta materialak erabili behar dituzten erakunde eta enpresa guztiek, ondorengo hizkuntza arauak bete behar dituzte eta Udalak, idazki bidez adieraziko dizkie baimena ematerakoan.*

*32.2.1. Hizkuntza idatziaren presentziari dagokionez, iragarkiak, oharrak, kartelak, txartelak, publizitatea, eta abar, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi behar dira.*

*32.2.1.1. Euskara hutsean argitaratuko dira ekintza-motak, bere ingurugiroak edo jasotzaileak eskatzen duenean edo/eta zor zaionean, betiere inoren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.*

*32.2.1.2. Euskaraz eta gaztelaniaz direnean, baldintza hauek bete behar dituzte:*

- *Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak, euskara hutsez idatziko dira.*
- *Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz edo esaldiak, euskaraz idatziko dira.*
- *Euskaraz idatzitako hizkien neurria, gutxienez ere gaztelaniazkoena baino hiru aldiz handiagoa izango da lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko, eta kokapenari dagokionez euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean ipini behar da.*
- *Material idatzia banatu baino lehen, ale bat Euskara-Zerbitzura eraman behar da, horrek oniritzia eman dezan.*

*32.2.2. Hizkuntza mintzatuaren erabilerari dagokionez:*

- *Bozgorailu, irrati, eta gisakoetan egiten den propaganda, oharrak, publizitatea, eta abar, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo da. Euskaraz egingo da ekintza-motak, bere ingurugiroak edo entzulegoak eskatzen duenean edo/eta zor zaionean, betiere hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe. Euskara hutsean egiten ez diren kasuetan, euskaraz gaztelaniaz halako hiru behintzat egin beharko dira eta euskarari*



*lehentasuna eman ez egin ere.*

- *Erabiltzen diren musika, kantu eta abarrei dagokienean euskarazkoa ipiniko da.*

*32.2.3. Hori guztia nahitaez bete behar da, eta, horretarako, alde zuzenetik Sail bakoitzari eta Zerbitzuburu nahiz Batzorde bakoitzari, horren guztiaren berri idatzia eman behar zaie bete dezaten (zirko, barraka, musika-jaialdi, antzerki, eta gainerako ikuskizun-mota guztiak barne). Baldintza Ekonomiko-Administrazioko Orririk prestatzen denean, argi eta garbi adieraziko dira bertan hizkuntz arau hauek guztiak.*

*32.2.4. Hori guztia kontuan izanik ere, Udalak ahalegin berezia egingo du arestian aipatutakoa euskaraz egin dadin.*

*32.3. Publizitate-ezaugarri, idazkun eta gisakoei dagokienez, honako irizpideon arabera emango dizkie diru-laguntzak Udalak izaera ofizialekoak ez diren merkataritza eta zernahi motatako entitateei:*

*32.3.1. Euskara idatzitako ezaugarri, idazkun eta gisakoei diru-laguntzak emango zaizkie, eta idazkunaren zenbatekoaren %50a ordainduko da eta, gehienez ere, 300 euroko diru-laguntza emango da.*

*32.3.2. Idazkunetan izena, deitura edo izen-deiturak besterik agertzen ez denean ez da 32.3.1. puntuan xedatutako diru-laguntzarik emango.*

*32.3.3. Establezimendua irekitzeko baimenaren jakinarazpenarekin batera, artikulua honetan xedatutako diru-laguntzaren berri emango zaie interesatuei, bai eta beren idazkunak euskaraz jar ditzaten gomendioa egin ere.*

*32.3.4. Xedatutako diru-laguntza lortzeko beharrezkoa da euskaraz ongi idatzita egotea eta hori Euskara-Zerbitzuak ziurtatu behar du.*

*32.4. Beste zenbait hizkuntz erabilera-mota ere (merkataritzako edo industriako zenbait idazketa, eta abar) lagunduko dira, Euskara-Batzordeak kopuruak proposatu eta Gobernu Batzordeak edo Udalbatzak ezarri eta bere aurrekontuan aurrez ikusita. Horien berri zehazki emango da komunikabideetan.*

*32.5. Obra-baimenen eskaera euskaraz egin eta ondorengo izapidetzea edo tramitazio osoa euskaraz egin dadin, eskaera euskaraz egiten duenari eta bere eskaerari jarraiki izapideak edo tramitazio guztia euskaraz egiteagatik, obra-baimenagatik diru-laguntza emango zaio, ehunekoak eta kopuru maximoak Euskara-Batzordeak aztertu eta Gobernu Batzordeak nahiz Udalbatzak ezarriko dituzte.*

*Eskatzaileak, eskaera hori egiteaz gain, berak ere, txostenaren izapideak egiterakoan, berari dagokion guztian, euskaraz jardun behar du, diru-laguntza hori jasoko badu. Dirulaguntza jasotzeko aukera horrek eraginkortasunik izan dezan, Udalarengana obra-baimen eske datozen guztiei, artikulua honen berri emango zaie.*



*32.6. Artikulu honetako aurreneko lau puntuetan (hots, 32.1, 32.2, 32.3 eta 32.4) xedatutakoa betetzeko, doan eskainiko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza ageriko testuak badira, eta horrela jakinaraziko zaie interesatuei.*

*33. artikulua.*

*33.1. Udalerriko biztanle, merkatari, dendari, enpresa, elkarte eta erakundeei, itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzu publikoa doan emango zaie. Horretarako, Udalak, behar adinako Euskara-Zerbitzua izango du eta Zerbitzu honek ikuskatuko ditu argitaratu behar diren idazki, idazkun eta gainerakoak.*

*33.2. Jasotzen diren itzulpen-eskakizunen artean, erabilera hedatu eta zabalena dutenek izango dute lehentasuna. Gainerakoentzako irizpideak, Euskara-Zerbitzuak zehaztuko ditu. Nolanahi ere, aldeztu aurretik ekarri beharko dira eta behar adinako denbora eman beharko da.*

*33.3. Euskara-Zerbitzu honek, idazketa-, itzulpen- eta erredakzio--informazioa emango ditu, sarritan argitaratuta ikusten diren akatsak egin ez daitezela eta egindakoak zuzen daitezela.*

*34. artikulua.*

*Irakaskuntza ez unibertsitarioari dagokionean euskarazko irakaskuntza orokor dadin eta euskararen ikasketa behar bezala berma dadin saio berezia egingo du Udalak, etorkizunean haur eta gazte horiek euskaldun osatuak izan daitezela, matrikulazio-epeak irekitzerakoan, euskarazko eredu eta adarren premia eta beharrezana azpimarratuz eta beroriek aukeratu dituzten haur eta gazteak, antolamendu arazoak direla medio, eredu eta adar horietan eskolatu gabe gera ez daitezela. Era berean, eskola-mundua eta eskolame eta ikasleen arteko giroa euskalduntzeko jardura osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak. Hori guztia, gurasoen eta haur eta gazteen aukera erabat errespetatuz eta ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.*

*35. artikulua.*

*Irakaskuntza unibertsitarioari dagokionez, euskarazko adarrak bultzatzeko, eta bereziki Ibarako ikasleak unibertsitatean euskarazko ildoetan matrikula daitezela ahalegin berezia egingo du Udalak, zabalpen funtzionalari begira garrantzi handia baitu horrek, izan ere, horretarako pertsona trebatuak behar dira, zabalpen funtzionala honen baitan bakarrik ez dagoen arren eta hori baino gehiago eskatzen badu ere.*

*36. artikulua.*

*Ama-hizkuntza euskara ez baizik gaztelania edo beste edozein hizkuntza duten hurrek euskara nekerik gabe ikasi ahal izan dezaten eta etxean eskuratu ezin dezaketenean euskara horretaz jabetzeko bizitzako lehen urteak oso garrantzitsuak direla kontuan hartuz, Ibarako Udalak, euskararik ez dakiten seme-alaben gurasoei haurtzaindegiko euskarazko ereduaren zerbitzuez baliatzeagatik, udalak*



*hautzaindegiaz baliatzeagatiko diru-laguntzetarako arautegia kontuan harturik, gurasoei ordaintzea legokiekeen tasaren %25eko diru-laguntza emango die.*

### *37. artikulua.*

*37.1. Hizkuntz normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusienetarikoa Ibarren euskaraz hitz egiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontuan hartuz batetik, Ibarako biztanleriaren ehuneko batek oraindik ez dakiela euskaraz eta, bestetik, eskoletatik ere ez direla denak euskara behar bezala menderaturik irteten, eta, halaber, kontuan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako saio berezia egingo du Udalak.*

*37.2. Saio horien artean Euskara-ikasleentzat eta euskarazko ikastaro berezietarako diru-laguntzak emango ditu, ondoren adierazten den gisan:*

*37.2.1. Euskara-ikasketak egiten dituztenei. Hizkuntz ikasketak Irakaskuntza erregelatutik at egiten dituzten guztiei, ondorengo diru-laguntzak emango zaizkie:*

- Matrikularen ehuneko bat emango zaie euskalduntze, alfabetatze, EGA, sakontze-ikastaroa eta gisako ikasketak egiten dituztenei, baldin eta eskolorduen %85etara joaten badira eta beste inongo erakunderen laguntzarik jasotzen ez badute. Ehunekoa Euskara-Batzordeak proposatu eta Gobernu Batzordeak edo Udalbatzak ezarriko du. Puntu hori, Euskara ikasten ari direnentzako diru-laguntzak emateko Arautegiak xedatutakoaren arabera garatuko da.*
- Langabetuei (langabetu-txartela dutenei) matrikularen ehuneko bereziko laguntza emango zaie, aurreko ataleko baldintza berberak betetzen dituztenean. Ehunekoa Euskara-Batzordeak proposatu eta Gobernu Batzordeak edo Udalbatzak ezarriko du.*

*37.2.2. Irakaskuntza erregelatutik at euskara hutsezko Ikastaroak (UEUkoak, Laneko Euskarakoak eta gisakoak) egiten dituztenei ere, diru-laguntzak emango zaizkie eta Euskara-Batzordeak proposatu eta Gobernu Batzordeak edo Udalbatzak erabakiko ditu aldi bakoitzean, laguntzaren zenbatekoa eta eskatu beharreko baldintzak. Betiere, beste inongo erakunderen laguntzarik jasotzen ez denean emango dira diru-laguntza horiek.*

*37.3. Ikastetxeetako euskarazko irakaskuntzaren eragile eta bultzatzaile diren egitasmo jakinei laguntzak emango zaizkie, aldian aldiko proiektuak aztertu eta ebatzi ondoren.*

*37.4. Udalerrian Euskararen Irakaskuntzan diharduten Erakundeei diru-laguntzak emango zaizkie, kasuen azterketa egin ondoren.*

### *38. artikulua.*

*Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal daitezen, gizarte-bizitza euskalduntzeko saio bereziak egingo ditu Udalak, bai sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak*



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

*bultzatuz, bai haur, gazte eta helduentzako euskarazko kultur eta aisi-ospakizunak antolatuz.*

*Era berean, euskarazko sorkuntza indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, bidezko irizten dituen ekintzak burutuko ditu Udalak: ibartarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak direla, literatur lehiaketak direla,...*

#### *39. artikulua.*

*Ibarrako Udalak, instituzioek egin behar duten euskara normalizatzeko lana ezinbestekotzat jotzen du, eta, era berean, nahitaezki jotzen du udalerrian eta Euskal Herri osoan euskararen normalizazioan zeresanik duten pertsona eta erakundeekin harremanetan lan egitea, euskara Ibarrako Udalean eta Udalerrian normalizatzen bada, denon elkarlanaren fruitu besterik ezin baitaiteke izan. Horrexegatik, Ibarrako Udalak bere lana eta pertsona eta erakunde horiena koordinatu asmoz, Euskara-Batzorde Informatibo zabal bat antolatuko du.*

#### *40. artikulua.*

*Udalerri barruan, edozein Zerbitzu Publikotan ere, Zerbitzua euskaraz prestatzen ez den kasuetan kexua bideratu ahal izango da Udaleko Euskara-Zerbitzuaren bidez eta Udaleko Euskara-Batzordea, nahiz Udalbatza bera arduratuko da prestakuntza horren zuzenketaz.*

### **LAUGARREN KAPITULUA: Hizkuntz normalizaziorako azpiegitura**

#### *41. artikulua.*

*Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurri teknikoen zuzendaritzaz eta jarraipenaz, Udaleko Euskara-Zerbitzu Teknikoa arduratuko da, Udaleko Euskara-Batzorde Informatiboak, Gobernu Batzordeak nahiz Udalbatzak esandakoa kontuan hartu ondoren, jasotako irizpideen arabera, markatutako ildotik bete daitezzen.*

*Udaleko Euskararen Batzorde Informatzaileari dagokio beraz, Udalaren hizkuntz normalizaziorako proposamenak egitea eta Gobernu Batzordeari nahiz Udalbatzari, erabakiak hartuz, Udalaren hizkuntz politika definitzea.*

*Euskara-Zerbitzu Teknikoaren zeregina da, aldiz, onartutako erabaki eta programa horiek hezurmamitu eta berorien zuzendaritzaz eta jarraipenaz arduratzea.*

*Era berean, Ibarrako udalerrian euskararen normalizazio-lanetan diharduten pertsona, elkarte, erakunde eta gizarte-esparru ezberdinen koordinaziorako organo bat eratuko da. Organo hori, sektore ezberdinetan euskararen normalizazio-lanetan dihardutenen eztabaidarako elkargune izango dena, Udalaren hizkuntz normalizaziorako jardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko irizpideak emateaz*



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

*arduratuko da. Bestalde, Euskara-Zerbitzu Teknikoa saiatu egingo da, era berean, Euskara-Batzorde Informatiboko partaideei behar duten laguntza teknikoa eta azpiegitura ematen.*

*Ibarrako Euskararen Batzorde Informatiboak proposatu eta Gobernu Batzordeak eta Udalbatzak markatutako ildotik, Euskara-Zerbitzu Teknikoa eta Udaleko Itzultzaile-Zerbitzua izango dira euskaraz egindako lanaren prestaketaz, idazkeraz eta gainbegiraketaz arduratuko direnak, hala nola pertsonaleko lankideei jatorrizko agiriak euskaraz idazten lagunduko dietenak.*

*Ordenantza honen aplikazio eta garapenean eta hizkuntza normalizatorako jardun orokorrean hizkuntz politikaren eskumena duten Erakundeekin elkarlanean arituko da Udala.*

*42. artikulua.*

*Ibarrako Udalak, Ordenantza honetan xedatzen dena bideratzeko, ezinbestekotzat jotzen du aurreko artikuluan aipatu azpiegituraz jabetzea, eta ildo horretatik, bere buruari sei hilabeteko epea jartzen dio azpiegitura hori bideratzeko.*

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehena.** - *Ibarrako Udalak sortu edo eta bultzatzen dituen programa guztietan, hizkuntza normalizaziozko ikuspegia kontuan hartu beharko da eta Udaleko Euskara-Zerbitzua izango da, betiere Ordenantza honen eta indarrean dagoen araudi juridikoaren ildotik, hizkuntz normalizaziozko ikuspegiaren presentzia berma dadin informatuko duena, udal-zerbitzu eta -departamendu guztiek txostena eman dezan eskaera egin beharko diotelarik aipatu Zerbitzuari. Hori guztia, erabakia hartzea dagokion udal-organoak hartzen dituen erabakiei kalterik egin gabe.*

**Bigarrena.** - *Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek ere, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin behar dituzte.*

**Hirugarrena.** - *Udal-Ordenantza honetan nahiz 10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkutzeko Legean, eta 86/1997 Dekretuan agindutakoa betetzeko eta betearazteko ardura, Udaleko aginte-organo guztiek dute eta bereziki Udalbatza Osoaren Bilkurak, Gobernu-Batzordeak, Alkatetzak, Alkateordetzek eta Batzorde Informatzaile guztiek. Organo horiek, Euskara-Batzordearen eta Euskara-Zerbitzuaren bidez kontrolatuko dute Ordenantza honetako puntu guztien betekizuna eta gertatzen diren arau-haustekak salatu eta bete daitezkeen eskatuko dute.*

**Laugarrena.** - *Era berean, Ordenantza honetan egitarautuak burutu ahal izateko ezinbestekoa den Euskara-Zerbitzua garatuko dute, behar dituen giza eta material-bitartekoz hornituta.*

**Bosgarrena.** - *Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa berezi xehetuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko Organo Exekutibo edo Egikaritzailleek.*



**IBARRAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

**Seigarrena.**- Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantzaren beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtetara euskararen normalizazioari buruzko legeria edo araudi orokorraren nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz, edota bestelako edozein arrazoiengatik lehenago berrikustea egoki ez baderitzo.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, eta ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edo kontrajarrita dauden erabaki guztiak baliorik gabe gelditu dira.

### **AMAIERAKO XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrik gabe gelditzeko, Udala nahiz Udalerria normaltasunez euskaraz funtzionatzera iritsi behar dute, edo berau arlo bereko beste Ordenantza batek ordezkatu behar du.

Ordenantza hau, Udalbatzarrak 2003-11-26(e)an egin zuen ohiko osoko bilkuran behin betiko onartu zuen, eta indarrean sartuko da Toki Araubiderako Oinarrien Legeak 70.2 artikuluan, Lege horretako 65.2 artikuluekin erlazionaturik, xedatutakoari jarraiki, eta indarrean egongo da Udalbatzarrak aldatzea edo indargabetzea erabaki bitartean.